

## **Buhame-lengoaia eta buhameen bizia**

E.: doaike buhamiak ere hala mintzatuko zitxun, ez?

M.: hala mintzo dira, ah, xuka hek e.

E.: bethi xuka.

M.: oui, oui, gero hek bazuten beren lengoaia re beren artian, epez dupuxupu ta ola.

E.: nola uxu ori?

M.: ah, ez dut erten al, eh! Banitien bi arreba, mintzo zuten kuranki elgarren artian, artzen ziren eskolan-eta.

E.: ah ba? Lengoaia artan, eh?

M.: oui, oui.

E.: dena pe-ekilan, ez, ola?

M.: voilà, hori emendatzen duzu beti, eta geo, nik ono eztiki erran dut, fite mintzo dira, ta ordian zuk ez zu konpreintzen.

E.: jeus e!

M.: ez...

M.: ta ez zuten lanik eta zeait bear zinien eman.

E.: gaizo buhameer.

M.: geo pasatzen zuelaik eta ikusten zuten oilo at sasu xokoan.

E.: braust.

M.: bein batto ari zen ezin atxemanez, eta oilloa kokoxka intzun ta etxekanderia lasterka, ta ikusi baitzien eldu zela: “zer dun deubru oillo mentsa, ez daunau minik inen, eh!”, bestiak! (irriak).

E.: beraz buhamiak eskualdun zitxun.

M.: jaanik hor dira ez dakit zonbat urte untan eh! Ba araiz, bo, guk... Mendiben bazien buamiak, guetako ez zien buamiak, gu bezala zien, adixkidiak ostatian ta elgarrekin ginen!

E.: ah ba? Ez zinezten heen lotsa ta jeus e?

M.: gu bezala zien. Usine-an ai zien lanian, ta eskuko sosa guk bano seurro zuten, zeen han bazuten jornal pixkaño bat, eta zuk etxean ez zinien biziki.

E.: beraz, bazixien inteligentzia.

M.: ah ba, guk... Bi familia bazien Mendiben, hola ari zienak, ta familia tarroak, eh! Ta mutikoak, ta gero bein Aatsak

o besta batzuez, eh, erran zaukuten: “zer zizte konpañatzen buame zar orrekilan, ua beorleitarra zen”, eta “gu eekilan konpañatzen gituk eta hiekin ez diau in nai” erran ginakon, kokina zen ua, izana ala, ta ordian desafiatu zuzten bi buame, baizu, haugi kanpoat eta ixtorio, bera oh jokaria zen, eh, beorleitar ua, ta hango bietaik flakoenak puskatu zien joka, jaikitzen zen ta berriz joaiten zakon, berritz e, ta bertziak erran zakon: “xantza uk horrek... Nik ono geio in nezakek!” Aise azkarro zen bestzia. Hua Ameiketaa joan zen, gu bezala, ta han bizi izan da, oui, oui.

#### **Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna**

Alexander Artzelus Muxika

Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy

Doktorego-tesia Gasteiz, 2021

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa

Letren Fakultatea

UPV-EHU

Lan honen kariatara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.

Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala